

ZAINTZA KOOPERATIBAK

Hernaniko Maitelan, zaintza behar duena eta zaintzailea ikusteko gaitasuna duen sarea

 **JENDARTEA** / Amagoia MUJKA TELLERIA

Elisa Peredo Quiroz eta Onix Karla Cerda Gonzalez Maitelan zaintza kooperatibako bazkideak eta langileak dira. 2019an eman zituzten kooperatiba sortzeko lehen urratsak. Emakumeak, migratzaileak eta zaintzako langileak diren neurrian, bidea ez da samurra izan. Trabak askotari-koak izan dira eta bidea, transformatzailea.

Elisa Peredo Boli-
viatik Euskal He-
rrira etorri zen
2006. urtean. Ha-
sieran, Donostia-
ra, eta geroxeago,
Hernanira. «Migratzaileak ho-
na iristen garenean daukagun
lan aukera bakarra etxeko
zaintzan aritzea da, askotan
barneko langile bezala, gaine-
ra. Nik seme-alabekin migratu
nuen eta ez nintzen barne lan-
gile bezala hasi, baina aritu
izan naiz asteburuetan etxee-
tan barne langile. Hala ere, be-
ti saiatu izan naiz nire etxean
seme-alabekin egoten eta or-
duka lan egiten. Askotariko
ikastaroak egin ditut; gozogin-
tza, sukaldaritza... tartean osa-
sun arazo bat izan nuen bizka-
rrean eta ebakuntza bat egin
zidaten. Esan zidaten ezingo
nuela adin nagusiko pertso-
nak zaintzen lan egin, nire biz-
karra ez zegoela ondo. Erreha-
bilitazioa egin behar izan
nuen denbora luzean. Zerbi-
tzari bezala eta kutxazain be-
zala ere aritu nintzen lanean,
baina lan horietan asko sufri-
tzen nuen bizkarretik. Berriz
buelatu nintzen zaintzara.
Gutako gehienek zaintzan egi-
ten dugu lan, eta askok barne
langile bezala. Migratzen du-
zunean aukera onena hori da,
barneko langile bezala sartzea
etxe batean, ekonomikoki au-
kera onena da. Eta migratzen

duzunean normalean zor bat
daukazu ordaintzeko. Nik, adi-
bidez, nire jaioterrian dauka-
dan etxea hipotekatu behar
izan nuen migratu ahal izate-
ko. Hartara, hona iristean dau-
kazun lehen helburua zor hori
kitatzea da. Ez diozu inola lan
bati ezezkia ematen eta dena
ongi torria da, baldintzak es-
kasak izan arren».

Onix Karla Cerda 2009an
etorri zen Nikaragutatik Euskal
Herrira. «Nire herrian beste
lanbide bat neukan, baina ho-
na etorri nintzenetik garbi

izan dut zaintzaren arloan ba-
karrik lan egin ahal izango du-
dala. Alabak etxean utzita, lan
egin izan dut barneko langile
bezala. Ez neukan beste auke-
rarik, alabei jaten eman behar
nien. Barneko langile bezala
irabazten duzun diruak ezin
du ordaindu lan mota horrek
uzten duen arrasto psikologi-
koa. Oso egoera gogorra da.
Egunean 24 ordu ematen ditu-
zu lanean. Bi orduz atera zai-
tezke, baina zer egin dezakezu
bi ordutan? Zure etxea beste
herri batean baldin badago,
garraio publikoa hartuta joan
eta etorri egiteko denborarik
ere ez du ematen askotan. Es-
klabotza modu bat da. Beste
pertsona batzuk zaintzen ari
zara eta ezin dituzu zure etxe-
koak zaindu».

BARNEKO LANGILEAK OKERREN

Peredok eta Cerdak garbi dau-
kate barneko langile bezala ari
diren emakume migratzaile-
na dela egoeretan txarrena.

«Barneko langileak 22 ordu
ematen ditu mendekotasuna
duen pertsona bat zaintzen.
Askotan etxebizitzak ez daude
egokituta eta ez da erraza mol-
datzea. Eta zerbitzua kontrata-
tzen duenak berehala igartzen
duenez sekulako behar ekono-
mikia daukazula, maiz horre-
kin jolasten du, gutxiago or-
dainduz adibidez. Askotan,
adin nagusiko pertsona zain-
tzera joaten zara eta egunero
haren seme-alabentzat jatekoa
egiten amaitzen duzu. Jende
asko zaintzen duzu soldata
oso eskas baten truke. Asko-
tan, adin nagusiko pertsona
medikuarenera zaintzaileak
eramaten du, pentsa. Eta me-
dikuaren azalpenak entzun
eta gero seme-alabei helarazi
behar dizkie. Ardura handikoa
da hori», kontatu du Peredok.

Emakumeak dira eta, gehie-
netan, migratzaileak. Horrek
ere badu bere zama. «Fisikoki
oso lan zaila da. Barneko lan-
gile gehienek osasuna galtzen
dute, asko argaltzen dira, lo
gaizki egiten dute... batzuetan
zaintzen duzun pertsonarekin
lo egin behar duzu, gela be-
rean. Ez daukazu intimitaterik.
Jateko ohiturak ere desberdi-
nak dira, gure kultura desber-
dina delako. Etxe askotan ez
dute hori onartzen, langileak
etxe koen gauza bera jan behar
duela uste dute. Eta langileari
gustatzen zaio bere herrialde-
ko zerbaite jatea, horrek gozo-
tasuna ematen du. Jateko mo-
du desberdinak eta kantitate
desberdinak dira, eta hori ez
da ulertzen. Kulturalki ere tal-
ka ematen da, eta normalean
etengabe helarazten zaigun
mezua da ez dugula ezer balio,
nahikoa egiten dutela guri lan
bat ematen, tuntunak garela»,
jarraitu du Cerdak.

«Batzuetan komunera
gehiagi joaten zarela irudi-

Behean, ezker-eskuin, Elisa
Peredo Quiroz eta Onix
Karla Cerda Gonzalez,
Maitelan kooperatibako
bazkideak eta langileak.
Jon URBE | FOKU



tzen zaie, edo ur gehiegi gas-
tatzen duzula dutxatzeko or-
duan... Adibidez, Erdialdeko
Amerikatik datozen emaku-
meek egunero bainua hartze-
ko ohitura daukate. Beren he-
rrian bero handia egiten du
eta horregatik dute ohitura
hori. Bada, hori oso gaizki
ikusten da zenbait etxetan.
Barneko langilea zarenean,
badirudi zure bizitza albo ba-
tera utzi behar duzula, zure
ohiturak, gustuak... zure nor-
tasuna alde batera utzi behar
duzu eta beste pertsona bat
izan, kontratatu zaituenaren
gustukoa. Eta hori eguneko 22
orduetan. Ez dago zure lana
eta zure bizitza bereizten di-
tuen marrarik. Familiak
gehiago zaindu beharko lituz-
kete langileak, arnasa eman.
Langilea ondo badago, hobeto
egingo du bere lana, hobeto
zainduko du», berriz Peredok.

Etxe barneko langilea izan
gabe, orduka lan egiten duen
zaintzailearen egoera ere ez da
ona. Adinekoen zaintza ez da
izaten kudeatzeko egoera sa-
murra. Batetik, familia asko
hankaz gora jartzen ditu eta,
bestetik, adin nagusiko pertso-
naren gainbehera fisiko eta
psikikoko testuinguruan gerta-
tzen da normalean. «Mende-
kotasuna duen pertsonaren
gainbehera gertatzen denean,
ez da erraza izaten. Askotan,
bere ezina zaintzen duenaren
aurka jaurtitzen du; oihuak,
gaizki egiten ari zarela esatea,
gehiegi edo gutxiegi laguntzen
dionzula leporatzea... frustrazio
uneak dira eta zaintzailea dago
hor parean. Batzuetan bastoi-
arekin eman nahi dizute. Baina
guk formakuntza jaso dugu,
egoera horiek kudeatzeko tres-
nak eskuratu ditugu eta gero
eta hobeto moldatzen gara.
Profesionalak gara eta gure la-
na modu profesionalen egin



«Donostia Kantuz» ekimeneko une bat. Jon URBE | ARGAZKI PRESS

*«Kulturalki ere talka
ematen da, eta
normalean
etengabe helarazten
zaigun mezua da ez
dugula ezer balio,
nahikoa egiten
dutela guri lan bat
ematen, tuntunak
garela»*

nahi dugu. Baina, hala ere, gu-
re lanari baliorik ez zaio ema-
ten, gutxietsiak izaten jarrai-
tzen dugu», kontatu du
Peredok.

Zaintzako enpresa pribatue-
tan aritu izan dira lanean Onix
Karla Cerda eta Elisa Peredo.
Ondo ezagutzen dute egoera.
«Enpresa pribatu horietan,
langileari ordua 5-6 euro or-
daintzen zaio. Eta enpresak fa-
miliei 16-17 euro kobratzen die
ordua. Ni aritu nintzenean ho-
rrela zen. Eta mendekotasuna
duen pertsonaren beharrak
handitu egiten dira egunez
egun. Askotan ordu eta erdi
daukazu pertsona altxatzeko,
garbitzeko, janzteko eta jana-
ria prestatzeko. Eta gero korri-
ka joan behar duzu beste etxe
batera, beste ordu eta erdi ba-
terako, akaso. Gerta daiteke
berandutzea, autobusa gal-
tzea, zain zegoena haserretzea



*«Profesionalak gara
eta gure lana modu
profesionalen egin
nahi dugu. Baina,
hala ere, gure lanari
baliorik ez zaio
ematen, gutxietsiak
izaten jarraitzen
dugu»*

eta errieta egitea... azkenean
zure lan eguna luzatu egiten
da», azaldu du Peredok.

ZERBAIT EGITEKO BEHARRA

Egoera eta testuinguru horre-
tan sortu zen Maitelan. Herna-
niko Amher Kultura Anitzeko
Elkartea ezinbestekoa izan da
kooperatiba sortzeko bidean.
«Amherren, emakume talde
bat elkartzen ginen 2012-2013
urteaz geroztik. Gure penak
kontatzen genizkion elkarri
eta konturatzen ginen denek
antzeko egoerak bizi genituela.
Hortik hasi ginen pentsatzen
ea zer egin genezakeen egoera
aldatzeko. Garbiketa enpresa
bat, jatekoa prestatzeko enpre-
sa bat... zerbait martxan jartze-
ko ideiarekin bueltaka ari gi-
nen. Beterri-Buruntzako
teknikariekin harremanetan
jarri ginen eta 2018 urte ingu-
ruan hasi ginen zaintza koope-

ratibaren proiektua mami-tzen», gogoratu da Peredo.

Cerda 2017an hasi zen Am-herrera hurbiltzen, hor topatu zuen magala eta babesa. «Oso garrantzitsuak dira horrelako topaguneak guretzat. Hor hasi ginen ideia garatzen eta egin zitekeela sinisten. Emakume migratzaileentzat zaintzaren inguruko lan kooperatibaren ideiari buruzkoak entzuten genituen, eta horrek itxaropena ematen zigun. Euskal Herri-ira iritsi nintzenetik zaintzaren sektorean nengibilen lanean eta ideia horiek entzutean pentsatzen nuen akaso bazegoela irtenbide desberdin bat, akaso gure bizitza hobea izan zitekeela. Nik une horretan ez neukan paperik, nire egoera ez zegoen erregulatuta. Kooperatibaren ideia horretan nire egoera erregularizatze-ko aukera bat ikusten nuen, eta hori oso garrantzitsua zen niretzat».

Bidea ez da erraza izan, trabak ugari izan dira eta bidean geratu dira emakume asko. «Hasierako deialdian, 2019ko apirilean, 25 pertsona baino gehiago agertu ginen. Larunbatetan jarri genuen hitzordua; formakuntzak, tailerrak, diru kontuak, gatazken kudeaketa, taldeen kohesioa... gauza asko ikasi beharra zegoen. Larunbatero arratsaldeko lauetatik zortzietara biltzen ginen; batzuek lana utzi behar zuten, etxeko zereginak... ez zen erraza. Larunbatero bildu ginen urtebetez, kooperatiba sortu baino lehen», azaldu dute.

Hasieratik garbi ikusi zuten inplikazioa eta konpromisoa ezinbestekoak zirela, bidea ez zela erraza izango eta indarra behar zela bide hori ibiltzeko. «Araua jarri genuen; hiru alditan baino gehiagotan huts egiten zuenak, ezin zuen parte



hartu. Azkenean zazpi emakume geratu ginen, horietatik hiru, egoera irregularrean. Eta kooperatiba sortzeko ezinbesteko baldintza da dokumentuak izatea. Horrela hasi ginen», gogoratu da Cerda. Zazpi langile horiek lanean jarraitu zuten, prestakuntza soziosanitarioa jaso zuten eta bestelako trebakuntzetan hasi ziren.

2020ko otsailean sortu zuten Maitelan kooperatiba. Lehenengo martxa sartu zutenean, pandemia etorri zen eta dena hankaz gora jarri zuen. «2020ko martxoan online bilerak egin genuen. ‘Zer egingo dugu? Aurrera. Salto egingo dugu sarerik gabe’, erabaki genuen».

AHOLKULARITZA ETA BABESA

Bidea langileek egin dute, baina izan dute bultzada inguruan. Hasieratik Beterri-Buruntza Mankomunitateko teknikarien aholkularitza eta laguntza izan dute, eta egun, Hernaniko Iturola eraikin publikoan daukate biltegia.

Langile bazkideak, bazkide kolaboratzaileak eta erabiltzaile bazkideak dira kooperatibaren zutabeak. Batzuek kapitala jarri dute kooperatiba sortzeko

Duela aste batzuk Hernanin izan zen zaintza kooperatiben bueltako jardunaldia.
Jon URBE | FOKU

eta beste batzuek trebakuntzan lagundu diete. Buruko min handienak kudeaketa administratiboak, dirulaguntzen aferak eta diru kontuek ematen dizkiete. Pixkanaka, ikasten ari dira. Beren erronka hori baita, ikastea. «Guk gure kabuz moldatu nahi dugu. Egiten ez dakiguna ikasi eta guk egin nahi dugu. Horretan ari gara», esan du Cerdak.

Bide horretan, Peredok kooperatiba baten barne funtzionamendua ikasi du eta ikasten jarraitzen du egunero. «Kooperatibak elkar laguntzeko eta babesteko tresna bat izan nahi du. Bidea ez da samurra eta une oro azaltzen dira trabak. Askotan pentsatu dugu amore ematea, baina pixkanaka aurrera egiten ari gara».

«Kooperatibak elkar laguntzeko eta babesteko tresna bat izan nahi du. Bidea ez da samurra eta beti daude trabak. Askotan pentsatu dugu amore ematea, baina aurrera egiten ari gara»

«Guk izandako esperientzietan ikusi dugu batzuetan langilea oso-oso erreta dagoela eta horrek eragina duela bere lan egiteko moduan. Lan baldintza duinak garrantzitsuak dira»

Lana profesionalizatu nahi dute, duintasuna eman, kostatzen dena ordaintzen dela ziurtatu. «Gure kooperatibak prezio duina eta justua jartzen du. Orokorrean sisteman dagoenarekin alderatuta, garestiagoa da. Beharrezkoa da jendartearen begirada ere aldatzea. Etxekoa ondo zainduta egoteko, langilea duin tratatu behar da, zaintzaren lanari duintasuna eman behar zaio», esan du Peredok.

Cerdak hartu du hitza. «Kooperatibari izena jartzeko orduan adostasuna izan genuen; Maitelan. Maitasunez lan egitea. Guretzako oso garrantzitsua zen kooperatibaren ize- nean bertan gure balioen berri ematea. Guk, pertsonak zaindua izan nahi duen modu horretan zaindu nahi dugu. Ez nik nire burua zainduko nukeen bezala, zuk zaindua izan nahi duzun bezala baizik».

«Guk izandako esperientzietan ikusi dugu batzuetan langilea oso-oso erreta dagoela eta horrek eragina duela bere lan egiteko moduan. Maitasunarekin lan egiteko garrantzitsua da langilea ondo egotea eta bere baldintzak duinak izatea. Batzuetan esaten digute ez dela beharrezkoa zaintzen duguna maitatzea, gure lana besterik ez dela. Bai, baina zaintza lanak elkarrekiko errespetu bat eskatzen du, hurbiltasun bat eta kariñoa egotea normala da. Pertsona batekin ari zara lanean, ez mahai batekin. Mahai batekin lanean ari naizenean, garbia geratzea beste helbururik ez dut. Pertsonekin desberdina da», jarraitu du.

Duintasunez egiten denean, zaintza ederra izan daiteke. «Batzuetan konexio ederra sortzen da, beste batzuetan gutxiago. Baina konexio hori

sortzen denean, gauza ederra da. Duela gutxi bazkide bat bileratera justu iritsi zen, presaka. Berak zaintzen duen pertsonak telefonoz deitu zion, “ondo iritsi al zara bilerara?”. Gauza horiek oso ederrak dira, elkar zaintza bat dago, elkarrekiko ardura bat. Zaintzailea motibazio berezi batekin joaten da lanera eta bera ere zaindua sentitzen da etxe horretan. Hori da gure helburua», nabarmendu du Peredok.

KOOPERATIBAREN ABANTAILAK

Maitelan kooperatibak une honetan hamaika langile ditu; horietatik sei bazkideak dira eta beste bostak langileak bakarrik. Zaintzaren eremuan aritzen dira nagusiki eta garbiketaren lanak ere egiten dituzte –etxeak, bulegoak, atariak–. Horrez gain, Hernaniko Udalaren Auzozaintza gizarte laguntzako programan parte hartzen dute.

Kooperatiban aritzeak onurak ekarri dizkie, nahiz eta bidea nekeza izan. «Lehen abantaila nagusia Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean gaudela da, ez etxeko lanen erregimen berezian. Erregimen horretan joan den urtera arte langileek ez genuen langabezia kobratzeko eskubiderik. Ni gaixotu egin nintzen, bizkarreko arazoak izan nituen denbora luzean, eta lanik egin gabe eta kobratu gabe egon nintzen. Langile askori gertatzen zaio. Edo zaintzen duten pertsona hil eta lanik gabe geratu dira egun batetik bestera, eta langabeziarik gabe, langile asko eta asko. Beste abantaila bat da baldintza ekonomiko hobeak lortu ditugula, Estatuko zaintzaren lan hitzarmenaren gaitetik ordaintzen dugu. Lan egonkortasuna lortu dugu eta

baita bizitzako egonkortasuna ere. Kooperatiba txikia da eta familia txiki bat bezala sentitzen gara, elkar zaintzen dugu. Hori abantaila handia da».

Aurrera begira dituzten erronken artean euskarak parte handia dauka. «Euskara ikasten ari gara, pixkanaka. Badakigu garrantzitsua dela euskara jakitea. Desberdin zaintzen da norbere hizkuntza eta ahalegin berezia egiten ari gara. Gure lanorduen %15 formakuntzara bideratzen dugu, tartean euskara ikastera. Asteazken hirutan bi orduz Euskaltegiara joaten gara. Oso garrantzitsua da guretzat. Euskarak hurbiltasuna sortzen du. Zure hizkuntza etxean sentitzen zara».

BORONDATE POLITIKOA

Erakundearen laguntza oso garrantzitsua izan da Maitelan sortzeko bidean, bai Beterri-Buruntza Mankomunitatearena eta baita Hernaniko Udalarena ere. «Sekulako zortea izan dugu, babes handia senti-

«Euskara ikasten ari gara, pixkanaka. Badakigu garrantzitsua dela euskara jakitea. Desberdin zaintzen da norbere hizkuntza eta ahalegin berezia egiten ari gara»

«Konturatzen gara emakume migratzaileekiko mesfidantza handia dagoela. Erakunde gutxi egiten dute emakume migratzaileek martxan jarritako proiektu baten alde»

tu dugu Mankomunitatearen eta Udalaren aldetik. Kooperatiba martxan jartzeko laguntza jaso dugu eta orain Auzozaintza programan parte hartzeko aukerak arnasa eman digu kooperatiba bezala, lana ziurtatu digu. Oso urte gogorak pasa ditugu eta garrantzitsua izan da erakunde horien babesa», esan du Peredok.

Borondate politikoa ezin bestekoa da. «Konturatzen gara emakume migratzaileekiko mesfidantza handia dagoela orokorrean. Erakunde gutxi egiten dute emakume migratzaileek martxan jarritako

Irudian, gizonezko bat egunkaria irakurtzen etxeko balkoian. Biztanleriaren zahartzearekin, zaintza beharrak asko ari dira areagotzen.
Jon URBE | FOKU



proiektu baten aldeko apustua, ez da sinisten emakume horien gaitasunean, nahiz eta asko oso prestatuta egon. Badira unibertsitateko ikasketak egin dituzten emakumeak, kooperatiba bat martxan jartzeko gogo eta gaitasuna badute, baina udaletxe batean beren proiektua aurkeztu eta barre egin diete. Horrelakoak askotan gertatzen dira emakume migratzaileekin. Guri askotan galdetzen digute ea nola lortu dugun Maitelan proiektua martxan jartzea. Gu jakitun gara erakundearen babesik gabe ezinezkoa izango zela», jarraitu du.

Erakundeei eta jendarteari begira lana egin beharra dago. «Borroka egin behar izan dugu kooperatiba bezala jendeak gudan konfiantza izan dezan. Une honetan 36 erabiltzaile ditugu, ez dira nahikoa, lan gehiago beharko genuke, baina bagoaz poliki-poliki. Hala ere, lanordua falta zaizkigu, herriarrek gure zerbitzuak kontratatzea falta zaigu».

Uneotan Hernani Burujabe ekimenaren zaintzaren mahaian parte hartzen ari dira, herrigintzatik zaintza sare publiko eta komunitarioa josteko lanean.

Eta aurrera begirako erronkarik ez zaie falta: «Zerbitzu gehiago izan nahi ditugu, lanordu gehiago lortu, lanaldi osoak egiteko; gure eremua zabaltu nahi dugu inguruko herrietan, eskualdean; kudeaketa hobetu nahi dugu; euskara ikasi eta B2 titulua lortu nahi dugu lizitazio publikoetan parte hartu ahal izateko; formakuntza sakondu; dirulaguntzak eskatzeko moduetan trebatu...», aipatu dituzte aurrera begirako etxeko-lanak. Aurrera begira dagoelako Maitelan kooperatiba.

FINI RUBIOREN DOHAINTZATIK SORTU DA AUZOZAINZA, ADINEKO HERRITARRAK KOMUNITATEAN INTEGRATZEKO PROGRAMA

Finí Rubio soziologoa, unibertsitateko irakaslea eta ezkerreko militante feminista 2016ko otsailean zendu zen. Antxon Ezeiza zinemagilearen alargunak agindu garbia utzi zuen hiltzen zenerako, bere ondasun ugariak lau herriren artean banatu nahi zituen; Andoain, Hernani, Errenteria eta Pasaia. Laurak dira langile herriak eta garai desberdinetan migrazioa jaso dutenak. Eta bere herentzia nora bideratu ere esan utzi zuen; bakardadean bizi diren adin nagusiko herritarrei zuzendutako egitasmoetara.

Hernanira ere iritsi zen, beraz, Finí Rubioren nahia, eta eskualdean egiten ari ziren gogoetarekin korapilatu zen. Xabier Lertxundi Asteasuinzarra Hernaniko alkateak azaldu dizkio GAUR8ri xehetasunak. «2020an eskualdean lanketa bat egin zen, zaintza beharrak eta langileen beharrak zeintzuk ziren ikusteko. Adinekoekin prebentzio programak ere egiten hasia zen Udala, dagoeneko bide bat abiatua zuen. Pandemian ere saio batzuk egin genituen, eta Finí Rubioren enkargua ere hor zegoen».

Testuinguru horretan hasi zen mamitzen egun martxan dagoen Auzozaintza ekimena. «Garbi genuen zerbait berezia egin behar genuela Finí Rubioren dohaintzarekin, ez zela izango martxan zegoen etxeko zerbitzu bat indartzeko edo adreilu kontu baterako... beste izaera bat eman nahi genion. Zerbait berria eta berritzailea egin nahi genuen».

Asmo horrekin hasi ziren biltzen udal teknikariak, politikariak, sindikatuetako ordezkariak eta gai horretan adituak direnak. Saio horietan sortu zen adineko pertsonen begirako esku hartze programa baten ideia. «Bakardadean zeuden adineko pertsonen interbentzio profesional bat jartzeko ideia sortu zen. Adin txikiekin egiten da, interbentzio familiarra existitzen da. Esku hartze

puntual bat izaten da eta helburuak betetzen direnean, bukatu egiten da. Adinekoekin antzeko zerbait egitea pentsatu genuen. Sozializatzen lagundu, ohitura batzuk hartzen dituen bitartean lagundu, eta behin lortzen denean, bukatu. Ideia hor sortu zen eta ideia borobiltzen hasi ginen», azaldu du Lertxundik.

Zabalduz eta Maitelan kooperatibekin elkarlanean sortu dute Auzozaintza izeneko programa. Batetik, detekzio lan bat egiten dute, bakardadean egon daitezkeen adineko herritarrak identifikatzen saiatuz. Eta bigarren salto batean herritar horiei komunitatean parte hartzen laguntzen die, sozializatzeko ohitura batzuk sortuz. «Askotan antolatzen ditugu ekimenak adineko pertsonentzat, baina ez badute inoiz beren kabuz parte hartu, orain ez dute parte hartuko. Askotan gertatzen da emakume alargunekin, adibidez. Bizitza osoa inguruko zaintzari eskaini diete eta bakarrik geratzen direnean, akaso ez dira gai kultur etxeko ikastaro batera gerturatzeko».

Auzozaintza programan, Maitelan kooperatibako langileak bidelagunak dira. «Adinekoekin laguntzen diete auzoan eta herrian dauden ekimenetan parte hartzen, lehen pausoa ematen. Behin ikasi dutenean, bidelaguna desagertzen da eta herritar hori integratuta dago komunitatean».

Froga pilotua auzoetan egin dute, eta dagoeneko igarri dira ondorioak, oso baikorrak. «Elizatzko auzoan lehen ez zegoen ezer adinekoentzat eta orain hamar bat lagunek taldea osatu da. Hasieran dinamizatzailearekin hasi ziren elkartzen, eta orain, bakarrik, planak egiten dituzte. Senideek diote dagoeneko ez dituztela ikusi ere egiten etxean. Emaizak ikusten hasi dira. Lehen kalean elkar agurtzen zutenek orain planak egiten dituzte elkarrekin», kontatu du alkateak.



AUZOZAINZA

Ahalduntze eta sozializazio prozesu indartsua ari da gertatzen Auzozaintzari esker. «Lotsak, konplexuak, autoestimu baxua, bakardadea... Horri aurre egin eta gizartearen aurrean azaltzea ez da erraza. Laguntza profesional batekin ahaldundu zaitezke; zuk ere lekua daukazu kalean eta zuk kalean egon behar duzu. Hori da zabaldutako ideia. Parte hartzen ari diren pertsona horiengan ikusten dugu ahalduntze hori eta osasun egoeran hobekuntzak ikusten dira. Oraintxe Medikuntzako eta Erizaintzako Fakultatearekin ikerketa bat egiten ari gara horrelako esku hartze batek osasun biomedikoan zer ondorio dituen ikusteko. Baditugu ondorio batzuk, jendea alaiago ikusten da, batzuk arinago sumatzen dira... baina

orain zientifikoki datuetan jasotzen ari dira horrelako aktibazio batek edo gizartearen parte hartzeak osasunean zein eragin dituen».

Lertxundik garbi dauka, «ona da parte hartzen duenarentzat, baina baita gizartearentzat ere, orokorrean. Herri ikuspegi batetik, onurak ditu. Kale biziak nahi ditugu, adin guztietako jendearekin. Denok kalean eroso eta gustura sentitzea da gizarte honek eduki behar duen erronketako bat. Programa hau horretara doa».

Eta Maitelaneko langileek parte hartzeak ere garrantzia dauka. «Emakume migratuak dira. Auzozaintzan dauden bitartean, egonkortasuna eta formakuntza lortzen dute, eta kasu askotan egoera erregularizatzeko aukera ere ematen die», iritzi dio Lertxundik.